

Kulturak hiria eraldatu nahi izan zuen urtea

Urteak igaro genituen “Donostia 2016” entzuten. Europako kultur hiriburua, herritarren energia olatua, elkarbizitzaren kultura... Hitz handien atzean, krisiz eta gatazkez betetako prozesua izan zen. Nork ez du oroitzen Odon Elorza eta Juan Karlos Izagirreraren arteko besarkada hura, 2011n? Gainontzeko kultur hiriburuengandik “desberdina” izateko bokazioa izan zuen hasieratik, bidean jarriz helburua. Eta legatuan. Baina bost urte pasa dira dagoneko, eta non dago legatu famatua?

 XALBA RAMIREZ CRUZ  DONOSTIA 2016



Erreportaje hau Irutxuloko Hitzak argitaratu du eta Creative Commons lizentzia libreaki esker ekarri dugu orriotara.

Odonek eta biok ez genuen elkar ezagutzen. Berak, nire *El Diario Vasco*-ko zutabeak irakurtzen zituen, eta, egun batean, hots egin zidan: ‘Aizu, Santi, ba al dakizu zer diren kultur hiriburutzak?’. Eta nik, baietz: ‘Kulturari balioa emateko Europako Batzordeak dituen mekanismoak dira, baina, funtsean, turismoaren ideiarekin lotuta dago, kapital fluxuarekin eta marka hirien ideiarekin. Kontzeptu hori ez zait asko interesatzen, kulturaren aurka doalako, eta aholkatuko nizuke ez aurkezteko’.

Santi Erasoren erantzuna da hau. Bera izan zen ondoren DSS2016EU proiektuaren Kultura zuzendaria eta Donostiaren hautagaitzaren buruetako bat. Garaiko alkate Odon Elorzak buelta emateko proposamena egin zion, bestelako ikuspuntu bat garatzekoa, eta “positiboan” jartzeko eskatu zion. Orduan sortu ziren lehen bi txostenak: *La potencia de lo posible (2008)* [Posible denaren potentzia (2008)] eta *La burbuja cultural. Educación/ecología/cultura:*

un nuevo trinomio social (2009) [Kultur burbuila. Hezkuntza/ekologia/kultura: trinomio sozial berria (2009)].

Hasierako proiektua lan horietatik abiatu zen. “Kultura ez zen ikusten masa ikuskizun gisa, erakargarritasun turistiko gisa, datozen ospetsuen zerrenda gisa”, Erasoren esanetan. “Tokiko kultura sustatu nahi genuen. Turistak ez zuen garrantzirik guretzat”.

Parte hartze zabala bilatu zen lehen bi dokumentuak osatzeko, eta “ia programa eta egitasmo guztiak jendeak proposatu zituen: elkarrekin, kolektiboek eta norbanakoek”. Izan ere, Erasoren ustez, “alkate batek gogoratua izateko egiten duen ideia tipikoa bazen ere, hasieratik kontsentsua bilatu zen, eta alderdi guztiena lortu zuen. Baita ezker abertzaleko pertsona batzuen ere [garai hartan, ezker abertzalea legez kanpo zegoen, eta ez zuen udalean ordezkariarik]”.

ALDAKETARIK GABEKO ALDAKETA

Baina, 2011ko ekainean, inork espero ez zuena gertatu zen. Sortu berria zen Bildu koalizioak irabazi zituen Donostia-

ko udal hauteskundeak, eta Juan Karlos Izagirre izan zen alkate berria. Handik gutxira izendatu zuten Donostia Europako Kultur Hiriburua, ekainaren 29an.

Espainiako beste hautagaitzek zabalaparta ederra sortu zuten, Bilduk irabazteak sortzen ziren azkurarengatik. Erasoren arabera, Bilduk “onartu egin zuen dokumentua” eta proiektua “gidatu behar izan zuen”. Igor Otxoa sartu zen orduan proiektuen zuzendari.

Otxoak kontatutakoaren arabera, “zubi lana” egin zuen, ordura arte proiektua landu zutenen eta gobernu berriaren artean. “Paperak dena aguantatzen zuen”, eta beraiei egokitu zitzaizen “lurreratze pista finkatzea”.

BILDU, “NORAEZA” ETA “BOIKOTA”

Saiakerak saiakera, “noraezean hasi zen proiektua”. Erasok dio, batetik, argi ikusi zela inork ez zuela benetan sinisten oinarrietan: “Desiren kontra irabazten ari ginen”. Baina, bestetik, aitortzen du “boikota” jasan zuela Izagirreraren korporazioak.

Otxoarentzat ere nabarmena da: “Denek erabili nahi zuten politikoki 2016a,



elkarri mokoka aritzeko. Bitxia da, zeren, patronatuan zeuden parte hartzaile berak ditu, adibidez, Zinemaldiak, eta bertan ez da horrelakorik gertatzen. Ikusmira eta zama mediatiko handia zuen honek”.

Erasok gehiago zehaztu du: “Bilduren garaian, babesle guztiak erretiratu ziren. Presio asko izan ziren. Manuela Carmena-ren [Madrilgo alkate ohia] bulegoan nengoenean berdina gertatu zen: komunikabideek eta botere ekonomikoek boikota egin zioten. Bilduri ere gauza bera gertatu zitzaion. Bilduk ekaitzaren kontra gobernatu behar izan zuen, ezin hobeto esan. Ahal izan zutena egin zuten. Pablo Berastegik bezala, ahal izan zuena”.

Itziar Nogeraz Donostia 2016ko zuzendaria izandakoarekin egin zuten “jazarpena” nabarmendu du: “Ospe txarreko kanpaina izan zen, eta ostiaka bota zuten ni Madril bezala. Ordutik hona, dena burugabekeria izan da. Hautsitako adostasunak, kendutako babesletzak, komunikabideak ere aurka... Hori izan zen *El Diario Vasco*-ren bilakaera ere. Hasieran lotsatia, gero Bildu sartu ze-



nean dena kontra, eta Eneko [Goia] sartu zenean murgildu egin ziren, baina beranduegi zen...”.

Europako Batasunak ere, balorazio txosten ofizialean, honela aipatzen du: “Bilduk EBren strategiari buruz zituen iritzi politikoak ez ziren bat etorri estatuetako eta eskualdeetako gobernuen iritziekin, eta horrek, ezegonkortasunak eragin zituen programaren kudeaketan (eta aldaketak langile giltzarrietan, koordinatzailea barne)”. Europako Batasunak berak aitortzen du programak “jarrapen mediatiko negatiboa eta zaila” jasan zuela, “baita motibazio politikodun

komunikabideen artean, diseinuaren eta exekuzioaren fasean ‘eskandalu’ politiko batzuk ere”.

Bilduk, hasiera batean behintzat, “ez zuen argi zertarako nahi zuen erabili 2016a”, eta honek eragina izan zuen egitasmoak zituen langileetan: bost langile hasieran, 2014an hamahiru, 2015ean 39, 2016an 61era heldu ziren arte. Inbertsio falta honek tirabirak eragin zituen Europarekin.

POLEMIKAK ETA DIMISIOAK

2011ko urtarrilean osatu zuten Donostia 2016 Fundazioa, Eva Salaberriak gida-

tuta. Fundazioa Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak osatu zuten. Ondoren, Espainiako Kultura Ministerioak, bere eskubidea baliatuz, patronatuan kide bat sartzea erabaki zuen.

Fundazioa sortu eta bi hilabete ingurura, dimisioa eman zuen Ainara Martin zuzendari artistikoak, "arrazoi pertsonalengatik". Urte bereko uztailen, Fernando Bernues izendatu zuten bere ordeko.

Santi Eraso izan zen proiektua uzten zuten lehen pertsona garrantzitsuenetako bat. 2011n, proiektua irabazi zenean, Sevillan bizi zen, eta berak aitortuta, ez zuen "bateragarria ikusten Donostiara berriz itzultzea". Ordurako, Igor Otxoa proiektuaren zuzendaria zen.

Itziar Nogeraren kargu hartzea izan zen polemikoena, 2013ko udan. Bilduk proposamena egin zion, Elhuyarren lanean ari zenean. Hark baiezkota eman, eta gerora atera zen lehiaketa publikoa. ABC egunkariak argitaratu zuen Nogerasek bere lankideei bidalitako agur gutuna, lehiaketa egin aurrekoa.

Espainiako Kultura Ministerioak azalpenak eskatu zituen, zalaparta mahai gainean zegoen. Alde guztiak batu ziren bileran batean, prozedura onartu eta Nogeraren hautatu zuten, aho batez. Handik gutxira, Fernando Bernuesek utzi zuen, eta gerora Igor Otxoak.

Zalapartak iraun zuen, eta azkenean Nogerasek kargua uztea erabaki zuen, proiektuak zuen "erabilera alderdikoa" salatuz. Baita "konfiantza falta" ere, Iza girre alkatea aipatuz. Xabi Payak, Enara García eta Garbiñe Muñoz hartu zuten behin-behinean zuzendaritza, Pablo Berastegi azken zuzendaria hautatu zuten arte. Hautsak harrotu zituen honek ere, Bilduk euskaraz ez zekien zuzendari bat hautatu zuelako.

Erasoren ustez, "Pablo Berastegik ahal izan zuena egin zuen proiektutik geratzen zenarekin. Horrelako proiektu bati ezin zaio gehiegi eskatu, izan zuen noraeza kontuan hartuta. Desegiten joan zen, eta berak apurrak hartu zituen. Izan ziren murrizketekin, ezin zen bestela egin".

ENEO GOIA ETA NORMALTASUNA

Eneko Goiak irabazi zituen hauteskundeak 2015ean eta PSE-EErekin gobernu osatu zuen Donostiako Udalean. *Stand-by* egoeran geratu ziren proiektuak martxan jarri zirenez, babesletzak berriro ere agertu ziren: Kutxa Fundazioak, 500.000 euroko ekarpena egin zion Donostia 2016ri, hiriburutzaren "babesle

global" bihurtuz. Tartean sartu ziren ere Telefonica, Iberdrola eta enpresa handien babesletzak.

2015aren hondarretan, programazioaren aurkezpen ofiziala egin zen Tabakaleran: 500 kultur eragile eta artistarekin diseinatu eta garatutako 102 proiektu aurkeztu ziren.

INAUGURAZIOAN HOTZA ETA TXISTUAK

Inaugurazio ekitaldia izan zen 2016ko ekitaldi entzutetsuenetako bat. Batez ere, beste behin, polemikarengatik. Goiak berak onartu zuen "ez zituela aurreikuspenak bete", eta Denis Itxasok "hotz" utzi zuela. Honen aurrean, Hansel Cereza artista arduradunak haserre erakutsi zuen eta ez zituen kritikak onartu.

Zubian egindako *show*-az gain, aurrekontuak ere sortu zuen eztabaidarrik. Izan ere, 2016ko martxoan oraindik ez zegoen argi zenbat gastatu zen ekitaldian. 660.000 euro kostatu zela jakin zen hasieran. Ordu erdiko ikuskizuna zela kontuan izanda, 22.000 euro minutuko. "Inaugurazio ekitaldia diseinatzea eta sortzea" eta "inaugurazio ekitaldiaren ekoizpena" kontzeptuak batuz gero, ordea, 800.053 eurokoa zen ekitaldia. Lau egunetako inaugurazioak denera 2.825.046 euroko gastua izan zuen, Ahal Duguk argitaratutako dokumentazioan irakur zitekeenez.

Aste batzuk lehenago, San Sebastian egunean ere, polemikak izan zuen bere lekua. Europako ereserkia jotzeko eta abes-terko asmoa zegoen, baina izugarritzko txistualdia entzun zen -erdi antolatutako

ekimenera jendea batu zen-. Tebistak zuzenean eman zuten.

URTE OSORAKO PROGRAMA ZABALA

Gorabeheretatik harago, hasierako asmoei jarraituz, 2016a ekitaldiz bete zen, Donostiako erdialdeko auzoetan zentratuz batez ere. Honela banatu ziren ekitaldiak: Egian %22,5, Erdialdean %21, Parte Zaharrean %19, Grosen %11 eta Antiguan %4,5.

3.356 jarduera antolatu zituzten 2016an, 6,8 jarduera egunero. Horietatik 2.476 Donostian, eta gainontzekoak Gipuzkoan zehar.

Programazioa "desestacionalizazio" planteamendu batetik garatu zen, Donostiako kultura eskaintza ofizialaren protagonismo txikiaren uneak bilatzen zituena. Horrela, hiriburutzaren jardueren eskaintzaren puntu gorenak maiatzean (453 jarduera) eta urrian (470) izan ziren, Donostiako goi denboraldia, uda aldia, ez den hilabeteetan.

OLATU TALKA HAMAR URTEZ

Hiru itsasargitan banatu zituzten kultur hiriburutzaren inguruko jarduerak: Baakearen Itsasargia, Bizitzaren Itsasargia eta Ahotsak Itsasargia. Ildo jakin bat zuen horietako bakoitzak, eta horietako bakoitzaren barruan hogeitaz jarduera inguru egin zituzten. Bestalde, Kaiak sortu zituzten, helburuak zeharka lantzeko: hizkuntza aniztasuna, teknologia, pentsamendu kritikoa, arte garaikidea, parte hartzea, artistak eta kultur espazioak.





Europako Batasunaren txostenean, 10.493 ordu eskaini zituzten 2.373 boluntarioen lana txalotzen da. Kontuan edukita Behobia-Donostia lasterketak 1.000 boluntario baino gehiago batzen dituela egun bakarrean, ez da oso zifra altua.

Olatu Talka izan zen proiektu berezietako bat. 2010ean sortu zen jaialdia, kultur hiriburutza oraindik hautagaitza fasean zegoenean. Azkena 2020an izan zen, 60.000 lagun inguruk parte hartu zuten, jaialdiaren 200 jardueretan.

KORTXOENEA ETA HIRI EREDUA

2016 hasi zenerako, apurtuak ziren elkarrizkita zubi gehienak herri mugimenduen eta kultur hiriburutzaren artean. Tabakalera irekitzen zen aste berean, 2015eko irailean, hondeamakinek Kortxoenea gaztetxearen zati bat apurtu zuten. Epailearen baimenik ez zuten, eraisketa atzeratu behar izan zen.

Agerian geratu zen gatazka Tabakalerraren inaugurazio ekitaldiko Pottors eta Klito hardcore talde feministaren kontzertuan. “Femeninoz eta aldarrikapenez” hasi nahi izan zuen ekitaldia Tabakalera, baina argi esan zuen: “Hau ez da guk irudikatu nahi genuena”. Taldeko Amaia Gabilondok gorputza pintura gorritz tindatu eta *Kultura herriarena. Kortxoenea bizirik* zioen pankarta zabaldu zuen. “Artea denontzako dela ari dira esaten, eta gaur haserretu egin zaizkigu egin duguna egin dugulako”, adierazi zuen Gabilondok.

Aste nahasiak ekarri zituen Kortxoenea gaztetxearen eraisketaren kontrako borrokaldiak. 2016ko langileek Kortxo-

nea babestu zuten, baita Donostiako eta Euskal Herriko kultur agente ugari ere. Tabakalera berak, txio baten bidez adierazi zion babesa gaztetxeari, eta zuzendari izandako Xabi Payak artikulu batean babestu zuen.

Azkenean, 2015eko azaroan eraitsi zuten Kortxoenea gaztetxea. Irailetik azarora hiriko kultur eskaintza zabalean antolatu zuen, besteak beste, Fermin Muguruza, Glaukoma, Berri Txarrak, Zea Mays, Perlak eta Anariren mailako taldeen kontzertuak eskainiz.

BAKE ITUNAK ETA ELKARBIZITZA

Bake itunak proiektua zen handinahienetako bat. Felipe VI. Espainiako errege izendatu berriaren bisita eta guzti. Artista talde batek bere parte hartzea kritikatu zuen *Ongi etorri Felipe* afixak paratuz markesinetan. Udalak faltsuak zirela adierazi zuen, baina artistek erantzun zioten ezetz, Espainiako erregeari ongi etorria benetakoa zela.

Eraso izan zen proiektu honen zuzendari nagusia. Berarentzat, “ETAren biolentziaren amaierako kontakizunaren ardatza izateko bokazioa zuen. Arterean historia ia osoa hartzen zuelako”. Bruegelen lanarekin hasten zen, “herria festa bat ospatzen ari da, baina erdian urkamendia duela. Gogoratzeko erabateko bakeak estatutu indarkeria dakarrela berekin”.

2016ak bizikidetzan egin zuen ekarpenaz galdetuta, prozesuari eman dio garrantzia Erasok: “Proiektua eraikitze-ko prozesu bera elkarrizketarako gune bilakatu zen. Ezberdinen arteko topake-

ta laborategi bat izan zen. Hori nahikoa eta sobera izan zen niretzat: PP eta Bildu adostasunetara iristea, pentsa!”.

Nabarmentzeko izan zen baita ere, *(E)zinezko elkarrizketak* egitasmoa, besteak beste Ramon Saizarbitoria eta Fernando Aranbururen arteko elkarrizketa gogoangarriarekin.

ALDERDI GUZTIEN KONTSENTSUA

Kritikak kritika, gatazkak gatazka, Erasok arrazoia du 2016k alderdien kontsentsua lortu zuela dioenean. PSE-EEK, Bilduk eta EAJk eraman zituzten politiketan gatazka nabari zen arren, oinarrian inork ez zuen zalantzan jarri egitasmoa bera. Azken finean, denak izan zirelako modu batean edo bestean proiektuaren parte.

Desokupatu 2016 mugimendua izan zen hasieratik egoerari kritika egin zion gutxietako bat. Polemikatik libratu gabe, hemen ere. Adibidez, Kortxoenea gaztetxean antolatu zen Santi Erasoren lehendabiziko hitzaldietako bat, oraindik gentrifikaizioaren gisako hitzak herri mugimenduen hiztegiaren ez zeudenekoa, eta sabotajea egin zioten gaztetxeko ateko sarrailari. Polemika egon zela, hori bai kontsentsua.

Igor Otxoak “kontraesan handia” zela uste du: “Elkarbizitzaz hitz egiten genuen, baina gero oso zaila zen dena”. 2015. urtean “Kortxoenea eraisteak ere erakusten zuten, kultur hiriburutzak oinarritzko gauza batzuk aldatzeko ez zuela balio izan”. Egondako zentsura ere ekarri du gogora, “nik dudak kulturaren ulerkeraren erabat kontrakoa da” [*Lekurik gabe, denborarik gabe* erakusketan euskal preso baten artelanaren zentsuraz ari da].

“Beste zerbait izan zitekeen”, Otxoaren ustez: “Hasieran denok bilatu genuelako oinarritik eraldatuko zuen herri kultura bat garatzea”.

ZEIN DA LEGATUA?

Otxoak distantziatik ikusten du egoera, eta uste du inork ez duela gaia berrartu nahi: “Denbora pasa da, eta benetako ikerketa bat egin beharko litzateke utzitako ondorioen inguruan”.

Erasoren ustez, “hamar urteko prozesua izan nahi zuen, 2016. urtea inflexio-puntua izanik. Prozesua zen ideia, bidea. Ez ekitaldia. Baina, azkenean, ekitaldia bihurtu zen”. Legatuari buruz galdetuta, ahoan bilorik gabe erantzuten du Erasok: “Nik dakidala, ez dago legaturik. Jendeak 2016a pasatzeko gogoia zuen, lotsa apur batekin. Aukera berde bat izan behar zena marroi bat bihurtu zelako”.

2016: kultura aitzakia gisa erabili zen urtea?

Atzera begira, inork gutxi uste du 2016ak bere helburu kulturalak bete zituenik. Kontrara, ordutik hona, hiriaren turistifikazio masiboaren erantzuleetako baten moduan ikusten dute askok egitasmoa. Baina zer zioten garaian hiriburutzaren kontrakoe? Izan al du hiriburutzak harreman zuzenik hiriaren bilakaeran?

2009an, kultur hiriburutzaren hautagaitza aurkeztearekin batera, etorri ziren lehen kezka eta kritikak. *Donostia Torturaren Hiriburu* edo *Kapitalaren kultura* pegatinak asko zabaldu ziren. Era berean, 2010eko apirilean, *Zenbat mezu... hainbat (2016) iruzur!* leloarekin jai batzorde, auzo el-

karte eta euskararen aldeko erakunde ugari elkarretaratzea antolatu zuten.

Edonola ere, Bilduk proiektua hartu zuenean, kritikak apaldu ziren, 2014ra arte. Igeldoko mendi magalean jarrita zegoen DSS2016EU logo erraldoia *AHT TAV EZ* leloarekin estali zuen Mugitu! mugimenduak, Kontxako badia hamar egunez aldarrikapenez betez.

Oroituko du inork, Itxasok onartu zuenez, nola joan ziren gauze PSE-EEko Odón Elorza, Denis Itxaso, Jorge Letamendia eta Alberto Rodriguez pertsonalki "euritako txapelak jantzita", estalkia kentzera, eta DSS2016EUren logoa berrezartzera. Alkate ohia bera ekintzara igarotzeko prest agertzeak asko esaten du hiriak bizi zuen egoeraz. Irudiak garrantzia berezia hartu zuelako Donostia 2016an. Ekintzaren haritik tiraka antolatu zituen AHTren kontrako mugimenduak lehen eztabaidak: *Azpiegiturak, AHT eta 2016 Kultur Hiriburutza: Kultur eraldaketa ala hiriaren merkantilizazioa?*

Gogoeta horietatik sortu zen Desokupatu 2016 mugimendua, eta honela jasotzen zituen lehen gogoetak: "Gure ustez,

2016ko Europako Hiriburutza hiriaren komertzializaziorako tresna bat da, Donostia salgai bihurtzeko 'marka' sustapen turistikoari begira, nabarmen. 'Kultura' amua da, espazio urbanoa eta hiria salgai bihurtzeko".

Manuel Delgado Bartzelonako antropologoak hitzaldi sonatua egin zuen 2015ean, ordurako jada eztabaida asko emanak zeuden, eta ikusten zen egitasmoak ez zuela esaten zena ekarriko. "Kultura aitzakia gisa" zuen izena konferentziak, eta bertan, "hiriaren merkatua" hitz egiten zen, "hiria marka gisa" saltzearen ideiaz, hain zuzen. "Printzipio abstraktu unibertsalak aipatuz deitzen dira horrelako egitasmoak: bizikidetzeta, bakea, kultura... Kasu honetan, inor ezin da kulturaren aurka egon. Azken finean, zer da kultura?".

Delgadok, bizikidetzeta izan zuen ere jomugan: «Nik kalean ez dut ikusten jendea haserre. Zer bizikidetzeta da, bada? Ikuspegi bat inposatu nahi dute: 'Kulturak garaitu egin du gatazka'. Hori da kontua, bake-tzea, eta hiriak otzan, atsegin eta esaneko bihurtzea».



Haren ustez, hiriburutzak, hiria saltzeaz gain, figuranteak ere saltzen ditu: "Dena publizitate *spot* bat da, eta bakoitzak bere papera du, irribarre egitea, hain zuzen; horretan datza parte hartzea". Azken finean, "klase ertainaren kultura zabaldu nahi da, klase ertaineko jendearentzat, mundu osoa klase ertainekoa den hiri batean. Eta, ez direnak, edo ez diruditenak, kanporagarriak izango dira".

Ordurako, Donostiako herri mugimenduek bat egin zuten hiriburutza hiriaren marka salmentarekin lotzearekin. Eta hau, etengabe gora zihoan turismoaren testuinguruan.

TURISMOAREN ETA ETXEBIZITZAREN ARAZOA

Zalantzarik gabe, azken urteotan larritu den fenomeno da turismoaren eta etxebizitzaren arazoa Donostian. Datutan, ordea, ez da hain mekanikoa hazkundera. Goiko taulan, hoteletan egindako gau kopurua zenbatzen da bestelako gaualdiak kontuan hartu gabe. 2011tik 2019ra, 574.096 gau gehiago egin dira Donostiako hoteletan (%30 gehiago).

Zifrak askoz altuagoak dira Airbnb eta bestelako ostatu turistikoak kontuan hartuz gero. 2016an, 1.894.610 egonaldi

kalkulatu ziren, hotelez gain (600.000 gehiago). Hain zuzen, hotelen gaiak sona hartu du hirian, 2016tik 45 hotel berri ireki baitira Donostian, 3.000 ohe baino gehiago.

Airbnb-k, 2021aren amaieran, 1.432 etxe ditu Donostian. Horietako 982, hau da, %68, jabetza bat baino gehiago dituzten etxejabeenak dira: FeelFree Rentalek, adibidez, 129 etxe eskaintzen ditu, eta The Rentals Coleccionek 72.

Etxebizitzan eragina izan du honek ere. 2015ean 3.627 euro balio zuen metro koadroak, eta 2021eko azaroan 4.925 eurora igo da prezioa. Alokairuari dagokionean, 2016ko apirilean metro koadroko 11,9 euro balio zuen alokairuak Donostian, 2021eko urtarrilean, 15 euro. %26,05eko igoera da.

ALFONBRA GORRIA 'HANDIEI'

Ezinezkoa da erantzule bakarra markatzea hiriak bizi izan duen turistifikazio eta espekulazio prozesuan. David Harvey geografo ezagunak ere, *Ciudades Rebeldes* liburuan onartu zuen ETArek eta estatuen arteko gatazkak turismoan bazuela eragina Euskal Herrian.

2011tik aurrera, Delgadok zioen modura, inbertsoreei erakutsi behar

zitzaien hiria baketuta zegoela. Eta diskurso horretarako baliagarria izan zen 2016a.

Edozein modutan, 2014an iragarri zuen *El Diario Vasco*-n Aingeru Mungia kazetariak gertatzear zegoena, *Los grande se pegan por Donostia* artikuluan [Handikiak Donostiagatik borrokan]. Inditex eta mundu osoko marka handiek hirian zuten interesa nabarmentzen zen "Donostia bogan zegoela" eta bertako eraikinak erosteko prozesua abiatua zela.

2016a ate joka egotea, marka handientzat eta turismoarentzat "pizgarri" bat zela baieztatzen zen, eta garrantzitsuena, 2015ean errenta zaharren legea amaitzera zihoala. Eta gordin iragarri zen: "Hamarkadak alokairu oso baxuak ordaintzen daramatzaten saltokiek persiana bota beharko dute. Handiak hor daude, amu eta sare pelagikoekin, piezarik onenak ahora eramateko zain".

2016a, bere asmo on guztiekin ere, hiriaren prozesu orokorrako baten parte izan zen, Europari, munduari erakutsiz, leku ona zela inbertsiorako. "Donostia ez dago salgai" afixek jada ez dute zentzu gehiegirik. Donostia jada saldu dute, eta ez zaigu ezer ere geratzen. ●

Zientzia eta irudimena, etorkizuneko giltzak

CAF
ELHUYAR
SARIAK
2022

Oinarriak:
cafelhuyarsariak.elhuyar.eus
Lanak bidaltzeko azken eguna:
2022ko otsailaren 12a

Antolatzaileak:

CAF

elhuyar
ezagutuz aldatzea

Babeslea:

NEIKER

